



GINARRIZKO EKINTZAK

1. Udalari proiektua azaldu eta udaletxeak biztanleei jakinarazi edabideen bidez.
2. Udaletxearen bidez, lokalak lortu. Honetarako, gu arduratuko gara lokalaren garbiketaz eta kudeaketaz, egin dezakegun minimoa da ez dugulako beste ezer udalari eskaintzeko trukean. Ez badugu lortzen lokala, agian unibertsitate ezberdinetan eman ditzazkegu txarлак gazteentzat. Zaharrentzat, jubилatu elkartetan.
3. Haurkezpекak prestatu, foietuak diseinatu eta ordutegiak egin haurkezpекetarako.
4. Interesatuentzako txarлак antolatuko ditugu, proiektua zeatzago haiei aurkezteko eta gure proiektuaren partaideak izateko.
5. Behin interesatuen taldea sortua, beraien artean ekintzak antolatuko ditugu adinekoek bakardadea ez sentitzeko eta talde dinamika sortzeko. Komunitate on bat lortzeko beraien arteko harremana ezinbestekoa iruditzen zaigu (proiektuarekin zer-ikusia dituzten ekintzak).
6. Komunitatearen bidez, partaideen erlazioak areagotuz doazen heinean, finantziazioa bilatzen hasi beharko dugu etxebizitzak eraikitzeko.
7. Udaletxearekin hitz egingo dugu etxe abandonatu bat eskaintzeko edota dirulaguntza batzuk etxe hori erreformatzeko, adibidez Andoainen, kaletxikin dagoen etxea. Haiek trukean, etxebizitzak eraikitakoan gure aretoetan herriko eta komunitateko zaharrekin edo gazteekin ekintzak egin ahal izango dituzte.
8. Proiektua aurrera eramane bitartean, ekintzak eta txarлак antolatu jendea kontzientziatzeko adinekoen bakardadeaz.
9. Finantziazioa bilatzeko kanpainak sortuko ditugu jende gehiagorengana iristeko.
10. Dirua lortzen joango gara, udaletxea eta finantzazioaren bidez, baita ere guk aurreztuta daukagun diruarekin, horrela jende gehiago gure komunitateetan edukiko dugu
11. Komunitate gehiago egin.
12. Etxeak sortzeko finantzaketa lortzean, eraikinak diseinatu eta eraikitzen hasi.
13. Etxeak eginak daudenean jendea bertara biritzea eramane.
14. Bertan biritzen daudenean, etxeko gastuekin (nola ordaindu), ekintzekin, arazoekin lagunduko diegu. Gainera, komunitateko dinamika ulertzeko eintzak antolatuko ditugu.
15. Etxebizitzen alokairua, kudeaketa eta komunitatearen jarraipena, espazio komunene mantenimendua eta energia berriztagarrien sistema kobratuko ditugu.
16. Bezero bakoitzaren egoera ekonomikoaren arabera, gehiago edo gutxiago ordainduko dituzte gure zerbitzua.



Admisio prozesua:

1. Norbaitek gure proiektuan interesa duenean aurkezpen bat entzun ondoren, foieto bat hartuko du, bertan, gure komunitatearen informazioa egongo da gure kontaktuarekin batera, hau da, telefono zenbakia eta posta elektronikoa. Foietoaren alde bat moztekoa izango da, interesa dutenek haien datuak beteko dituzte alde horretan eta guri emango digute orri zatia, ondoren, informazio zehatzagoa bidaliko diegu ala nola komunitateko arauak eta funtzionamendu zehatzagoa.
2. Informazioa jasotzen dutenean, bukaeran inkesta txiki bat egongo da bertan komunitateko parte izan nahi duten edo ez adierazi beharko dute.
3. Behin bezero posibleen zerrenda izanda hainbat gauza demostratu beharko dituzute bai ala bai bete beharko dituztenak:
 - 3.1. Beraien diru sarrerak aurkeztu beharko dituzte. 2.000€tik gorakoak badira ez dira sartuko.
 - 3.2. Ikasleak badira, ikasten ari direla frogatu beharko dute.
 - 3.3. Adinekoen kasuan, bakarrik daudela frogatu beharko dute.
 - 3.4. Adinekoek, bakarrik bizitzeko osasuna dutela frogatu behar dute
4. Lehentasuna izateko bete beharreko gauzak:
 - 4.1. Ez dute etxe bizitzarik
 - 4.2. Soldataren arabera lehentasun gehiago edo gutxiago izango dute.
 - 4.3.
5. Lehentasunaren arabera, interesatuekin zerrenda bat egingo dugu, adinekoena eta ikasleena.
6. Zerrendako lehen postuan daudenei deitzen joango gara eta aste bateko epea izango dute baiezkoa emateko, atzera bota ez gero hurrengoari pasako zaio txanda.
7. Baiezkoa emandakoan fiantza bat ordaindu beharko dute 300€koa



Ekintzak: Instalazio komunak egongo dira (egongela, sukaldea, jangela ...) bertan ekintza gehienak egingo dira. Goizeko ekintzak adinekoentzat dira, gazteak lanean edo ikasten egongo direlako.

Adinekoentzako ekintza ordutegia:

Ordutegia	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata
11:00	Mendibuelta	Pilates	Memoria	Mendibuelta	Pilates	Memoria
13:00	Irakurketa gidatua	Tailer kreatiboa	Dantza klaseak	Eskulanak	Baratzean ekintzak	Zumba
17:00	Bingo	Erlaxazio saioa	Mahai jokoak	Zinema saioa	Sukaldaritza saioak	Antzerkia
18:00	Baratzean ekintzak	Zinema saioa	Irakurketa gidatua	Petanka	Klase teknologikoak	Irteera
20:00	-	-	-	-	Afarimerienda	Dantzaldia

Ekintza bereziak (ordutegitik kanpo):

- Garaiaren arabera, eskulan mota desberdinak egingo dituzte. Eguberriak badira, komunitatea apaintzeko izarrak, argiak, zuhaitzak... egin ditzazkete elkarrekin.
- Posta atsegina: Familiei edo lagunei idatzi, postalak apaindu edo mezutxoak sortu ondorengo astean bidaltzeko.
- Inauterietan mozerro lehiaketa bat egin.
- Hilabetearen behin, autobus bat alokatu eta irteera interesgarri bat egin. Irteera ohikoak baino urrutirago joateko.
- Hilabetearen behin, adineko bakoitzak kanpoan dituen 2 pertsona ekarri ditzake komunitatera. Guztien artean, bazkari bat antolatuko dugu. Horrela, guztiek elkar ezagutuko dute.



Gazteentzako ekintza ordutegia:

Ordutegia	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala	Larunbata
Goizak:	Lanean / Ikasten	Lanean / Ikasten	Lanean / Ikasten	Lanean / Ikasten	Lanean / Ikasten	Lanean / Atsedena
17:00	Bingo	Erlaxazio saioa	Mahai Jokoak	Zinema Saioa	Sukaldaritza Saioak	Antzerkia
18:00	Baratzean ekintzak	Zinema saioa	Irakurketa gidatua	Petanka	Klase teknologikoak	Irteera
20:00	Denbora librea	Picnic	Denbora librea	Escape room	Afarimerienda	Dantzaldia

Ekintza bereziak (ordutegitik kanpo):

- Beraien artean, erabiltzen ez dituzten arropak, beraien artean aldatu.
- Udarari, ur-jokoak antolatu.
- Kirol-topaketa: Saskibaloia, boleibola, padela, bizikleta, longboard... edo spikeball bezalako alternatibak.
- Hilabetearen behin, autobus bat alokatu eta irteera interesgarri bat egiteko. Irteera ohikoak baino urrutirago joateko.
- Hilabetearen behin, gazte bakoitzak kanpoan dituen 2 pertsona ekarri ditzake komunitatera. Guztien artean, bazkari bat antolatuko dugu. Horrela, guztiek elkar ezagutuko dute.



Arauak:

Komunitatean parte-hartze asktiboak:

- Komunitateko bizilagunek errespetuz eta elkartasunez jokatu behar dute, belaunaldi desberdinen arteko harremanak sustatuz.
- Jarrera desagokiak, errespetu falta edo gatazkak aztertuak izango dira eta beharrezko neurriak hartuko dira, horien artean, komunitatetik kanporatzea.

Gazteak:

- Gazteak komunitatean sartzen dira etxebizitza duin eta merkeago batean bizitzeko aukera izateko, hortaz, ikasketak amaitutakoan eta lan egonkor bat lortzerakoan komunitatetik joan beharko dute.
- Asteak ekintza asko antolatuko dira, gazteek gutxienez astean hiru ekintzetan hartu beharko dute parte. Aste baten batean gaixorik badaude, edo arazoren baten batengatik ez badute honako hau betetzen, beste aste batzuetan erreperatu beharko dituzte ekintzak.
- Prest egon behar dute beti besteei laguntzeko, bereziki adinekoak laguntzeko.
- Belaunaldi desberdinen artean elkar ezagutzeko eta elkarrekin ikasteko borondatea izan beharko dute.

Adinekoak:

- Komunitatean antolatzen diren jardueretan parte hartze aktiboa azaldu beharko dute.
- Belaunaldi desberdinen artean elkar ezagutzeko eta elkarrekin ikasteko borondatea izan beharko dute.

Espazio komunen erabilera

- Espazio komunak denonak dira; erabiltzen dituenak garbi eta txukun utzi beharko ditu.
- Materiala, mahaiak, jolasak, tailerreko objektuak... egoera onean mantendu behar dira. Hondatzen bada, jakinarazi behar da eta puskatu duen pertsonak erantzukizuna izango du.

Jasangarritasuna

- Birziklatzea derrigorrezkoa da. Hondakinak dagokien edukiontzietan bereizi behar dira: ontziak, beira, paper-kartoia, organikoa eta errefusa.
- Argia eta gailu elektrikoak itzalita utzi erabiltzen ez direnean, eta ez erabili behar baino gehiago.



- Dutzak laburrak izan behar dira, iturria ondo itxi eta haustura bat egonez gero berehala jakinaraztea.
- Baratza errespetatu. Hondakinak ez bota eta astean behin zaintza-lanetan parte hartu.

Energia berriztagarria: Energia 30€ izango dira hilabeteen, hortaz, diru hau ez gainditzeko hainbat arau ezarri ditugu:

- Gailu elektrikoak behar direnean erabili soilik. Etxetik irteteratakoan dena itzali.
- Ez daude baimenduak honako bonbila hauek: halogenoak, inkandeszente klasikoak, dikroiko zaharrak eta fluoreszente zaharrak, kontsumo handiegia dutelako.
- Lehorgailua, mikrouhina edo labea, bezelako gailuak ez piztu aldi berean. Energia solarra modu eraginkorrean erabiltzeko.
- **OHARRA:** Hilabete kontsumoa 30€koak bermatzen duena baino gehiago bada, erabiltzaileak bere kabuz ordainduko du.